

JAKIUNDE
25-10-2007

Pedro Miguel Etxenike Landiribar

Traducción del euskera:

Excelentísimo señor lehendakari, Diputado General de Gipuzkoa, presidente de Eusko Ikaskuntza, señoras y señores, un saludo a todos y todas, un cordial saludo.

Bekoak goikoa ezkondu leidi, ta txikiak handia benzi leidi, asmoz eta jakitez.

No sé si las palabras antiguas suelen ser siempre palabras prudentes. Pero el viejo dicho adoptado como lema por los fundadores de Eusko Ikaskuntza emana prudencia. Intención, voluntad, decisión, valentía, iniciativa, deseo... Es imprescindible. Pero cuanto más nos adentremos por el camino equivocado más nos alejaremos del objetivo. De todos modos, incluso el más avezado en el camino adecuado se aleja cada vez más de su objetivo si permanece quieto, ya que en el mundo global actual quien permanece quieto comienza a quedarse rezagado a gran velocidad.

Gazteleratik itzulpena:

Eusko Ikaskuntzaren sortzaileek bere egin zuten Aulestiatarren armariaren lema aipatu nahi izan dut hasteko, edukiak gaurkotasuna eta transzendentzia duelakoan. Lemak ez du determinismorik erakusten, baina bai ordea determinazioa, gizakiok sortzen ditugun desabantailak “*asmoz eta jakitez*” *gainditu daitezkeela* aldarrikatzen baitu. Hau da, indarrez eta faktore subjektiboenen bidez, horiek baitira batez ere –historiako beste edozein garaitan baino gehiago- arrakasta eta porrota baldintzatzen dutenak. Aulestiatarren armariaren testuinguru gerlarian “*Asmoz eta jakitez*” hitzen esanahia “*zuhurtziaz eta egiten jakinez*” izan zitekeen, baina euskal adituek, lema bere egitearekin batera, esanahi orokorragoa eta jatorrizkoagoa hartu dute: *asmoa, nahia, gogoa, erabakia edo konpromisoa* adierazten dute batetik, eta *jakinduria, ezagutza, zientzia edo egiten jakitea* bestetik

Traducción del euskera:

Precisamente, es a esos sabios de aquí, y de todas partes, que han sabido fusionar ambas al más alto y mejor nivel a quienes deseo dedicar el reconocimiento y el saludo agradecido de todos y todas las presentes. Y, asimismo, a los padres, profesores, amigos, instituciones y a todos los ciudadanos y ciudadanas que nos han dado los medios y la posibilidad de aprender de dichos sabios. Ya que gran parte de lo que somos en el ámbito del conocimiento es fruto, de una forma u otra, de su contribución.

Conscientes de ello, quienes hemos sido elegidos miembros de Jakiunde sabíamos perfectamente que estábamos en deuda con la sociedad. Pero al aceptar el nombramiento nos comprometemos, desde hoy mismo, a intentar saldar dicha deuda con mayor honradez si cabe.

Y, precisamente, queremos expresar que cumpliremos con esa deuda “*asmoz eta jakitez*”. Con el deseo de ofrecer a hombres, mujeres y pueblos mejores posibilidades de ser, ofreciendo a la sociedad lo mejor de nuestro conocimiento.

Incluso el más sabio de los sabios lleva consigo su pena: cuanto más sabe, más consciente es de lo que no sabe. El sabio es quien conoce lo que le queda por aprender. Por eso le es tan difícil ofrecer consejos de sabio. Siempre hay algún punto que aún no ha estudiado y que le pide no dar aún su opinión.

En consecuencia, el honor que se nos ha concedido, la oportunidad que se nos brinda, la duda que nos asalta y la responsabilidad que aceptamos cuelgan de nosotros cual rama unida indisolublemente al tronco de un árbol. En cualquier caso, la tarea que se nos encomienda es diáfana: por encima de nuestro honor, oportunidades y dudas, debemos saldar la deuda de lo que se nos pide: mostrar nuestra verdad desde nuestro conocimiento, sin prepotencia pero sin temer a nadie, conscientes de que así como grata podría resultar dolorosa para nuestro pueblo o para cualquier otro pueblo del mundo.

Y en la actualidad para saldar nuestra deuda debidamente –si no de manera sobresaliente- debemos tener en consideración, inexorablemente, diversas condiciones: 1) En primer lugar, debemos saber cómo debemos actuar para cumplir con nuestra responsabilidad de la mejor forma posible. Casi ninguno de nosotros ha dedicado su tiempo y conocimiento a analizar cómo han surgido y se han desarrollado las Academias más prestigiosas del mundo. Y eso es lo primero que debemos hacer, lo que deberíamos trabajar en nuestros primeros meses de andadura: conocer las experiencias de distintas academias, analizar exhaustivamente los pasos positivos y negativos que dieron en su día y aprender de todo ello. 2) Adaptar a nuestras condiciones especiales aquello que seamos capaces de aprender, “asmoz eta jakitez”. Definir cómo podemos incidir en nuestro entorno, nuestra organización y proceder, dispuestos siempre a aprender de otras experiencias.

Gazteleratik itzulpena:

Agindu didazuen misioak niganako konfiantza adierazten du, eta eskerrak eman nahi ditut horregatik. Eskerronez onartzen dudana ohorea da. Betekizun horrek denboran atzeratu egingo ditu neure buruari ilusioz jarri nizkion lanak, eta hori zentzuzkoa izango da soilik bi baldintza betetzen badira: zeregin berrien garrantzia eta norberak hasitakoa jarraitzeko beste batzuek duten gaitasunaz ziur egotea. Biak ala biak argi eta garbi betetzen dira. Ibilbidea hasten duen Erakundea garrantzitsua da, gaur egun jada bada eta ziur naiz etorkizunean are garrantzitsuagoa izango dela. Gainontzeko kideen artean fintasunak, inteligentziak eta borondateak osatzen duten oinarria ia infinitua denez jarraipena bermatuta dago, eta zalantzarik gabe, hitz egiten ari zaizuenaren lana hobetuko duten iragarpena da.

Zer da Akademia bat? Zertarako balio du? Akademia gauza askorekin identifikatu daiteke: jakintsuen ohorezko asanbladatik hasi eta zientzia- eta kultura-klubera arteko guztiarekin. Hala ere, badirudi gehiengoa bat datorrela izan beharko litzatekeena adieraztean: erakunde eredugarria, bai bere osaketan eta baita bere jardunean ere, gidari izateko gai dena, zorrotasunez eta ezagutzaz gizartearentzat baliagarria, bere ekintza eta aholkuekin bide egokiak aurkitzen lagunduko duena erreferentzia sendorik gabeko inguru konplexuan, non ziurgabetasunean bizitzen ikasi beharko dugun. Bere txikitasunaren jabe izanik, apaltasunez, gure bizimodua are gizatiarragoa egiteko misioan lagungarri izango den erakundea.

Helburu hori lortze aldera, gaur abiatzen den proiektua lan kolektibo gisa ulertu behar da, izan ere, guztion inplikazioa behar du. Euskal Herriko Akademia hau, ahalegin anitz eta kolektiboaren bidez egin dezakegun hori izango da, eta gizartearen zerbitzura

egoteko borondatea izango du. Horretarako burokraziatik ihes egiten ikasi beharko dugu. Eskarmentuak erakutsi digu burokraziak hedatzeko joera duela eta sorkuntza suntsitzera iristen dela. Asmo onez eta jakinduriaz eginak izan arren, erregulazioak zurruntzeko joera dute. Baliabide batzuen erabilera okerra saihesteko diseinatutako erregulazioak sarritan erabilera egokirako oztopo bilakatzen dira.

Jakiunde bere lanarekin eta jakintza-eremuekin maiteminduta dagoen jendea biltzen du. Egiten denarekiko maitasuna jakintza lortzeko biderik zuzenena da, esperimentu metodologikoen, eginbeharraren, agindutako ordainen edo zigor-mehatxuen gainetik. Egiten denarekiko maitasuna, artea, zientzia, kultura maitatzea. Idealismo hori pragmatismo eraginkorrena da. Bertatik aterako dira, poliki-poliki, lanari eutsiz eta egunetik egunera, fintasuna analisisan, zorroztasun kontzeptuala, xehetasuna zaindu eta kontuan hartzea, zehaztasuna, pintzel fina, hau da, brotxa loditik eta errepikapen topikoen azalkeiatik urrun dagoen lana. Errealitaterik eza itxurakeria-piloarekin ordezkatzeko saihestuko da.

Erakundeok sortu zireneko baldintzekin alderatuta, Akademiak oso bestelako egoeran eraman beharko du aurrera bere lana. Iraganean, ezagutzarik eza sarritan informazio faltarekin lotuta zegoen. Gaur egun, berriz, ezagutzarik eza gehiegizko informazioarekin lotuta dago, gero eta gehiago; ez dago gaitasunik ingurumartik funtsezkoa bereizteko. Denboraren erabilera, hau da, denbora kudeatzeko gaitasunik eza da ezagutzaren gizarte berriaren arazo nagusietakoa. Ezagutza pixkanakako fenomeno da. Geldoa. Hazkorra. Transmisiorik eta ekintzarik gabe ez dago ezagutzarik; ezagutzak balioa sortuko du baldin eta hedatzen, barneratzen eta dagokionean eraldatzen bada.

Azkenik, gure Akademiak zentzua izango du bakarrik herriaren zerbitzura baldin badago erabat, Zientzien, Arteen eta Letren esparruan dituen beharrei aurre egitera emana badago. Ikuspegi horretatik Jakiunde bikaintasunaren *Think Tank* izan liteke, hainbat gai aztertzen eta eztabaidatzen dituen, hala nola ondorengoak:

- komunitate zientifiko eta artistikoaren eta, orokorrean, gizartearen erronka handi eta berriak (kulturaren, hezkuntzaren eta ikerkuntzaren alorrekoak), ezagutzaren mailarik goreneko informazioa bermatuz;
- erakunde publiko zein pribatuek aurkeztu dituzten proposamen eta proiektuak, erabaki egokienak hartzen lagunduz eta egitasmoak kalitatez gauzatzen direla zainduz, hau da, epe luzera begiratzen duen aholku-organoaren lana eginez.

Europako bederatzi herrialdeetako hamar Akademiak (Alemania, Suedia, Frantzia, Italia, Belgika, Ingalaterra, Portugal, Holanda eta Espainiakoe) “Madrilgo Deklarazio Akademikoa” aurkeztu zuten 1992an. Itun horren bigarren puntuak honela dio: “Akademien betebeharrak nagusietakoa da dagozkien gaietan gobernuari eta Administrazioari aholku ematea, euren iritzia eskatzen dietenean eta baita eskatzen ez dietenean ere”. Auzi garrantzitsuenetan diziplina zientifiko bat baino gehiago sartzen denez, Akademien espezializazioak zailago egiten du erabateko oinarriekin aholkatzea.

Aurrekari askorik ez duen ekimenez, gure Akademia erreferentzia berri gisa sortu da, beste batzuen osagarria, diziplinartekoa, kide bakoitzak bere diziplinan duen bikaintasunean oinarrituta. Jakiunde letrak, arteak eta zientziak uztartzen ditu. Azkar hazten ari den espezializaziorako joeratik urruntzen da. Izan ere, espezializazioa arazo larri bilakatzen ari da gutako bakoitzaren ikerlanean. Eta baita hezkuntzan ere. Hasieran norberak erabakitzen duen norabidea aldatzeko prest egotea da argumentu on bakarra

ikasleek heziketa ahalik eta zabalena jaso dezaten, gehiegizko espezializaziotik urrunduz.

Diziplinartekotasuna da Jakiunderen indarraren eta erabilgarritasunaren oinarria, hein handi batean. Erronka zoragarria daukagu aurrean: kideen talentu zabala eta anitza modu eraginkorrean egituratzea, horrela, soseguz eta zorrotasunez, gaur ohore egiten digun gizartearentzat baliagarri izateko. Gure lanaren zati garrantzitsu bat kanpora begira egingo da. Jakiunde bikaintasun-zentrifugatzaile bat bezala ikusten dut nik, bai gauzak egiteko moduan eta baita gizarteari jakintza-alorretan ematen diren aurrerapenak komunikatzeko orduan ere, gizartea hobeto informatuta egon dadin, eta horrenbestez askeagoa izan dadin.

Kalitatezko ekimenek denbora behar dute modu egokian heltzeko, ez datoz bat presarekin, baina aldi berean, bultzada eta garapenean arintasunik handiena behar dute. Jakiunde, baldintza horietaz jabetuta, erakunde gazte eta indartsu gisa sortzen da, baina aldi berean, oinarri sendoak ditu eta egungo Euskal Herritik etorkizunari eta munduari begiratzen dio.

Lehendakariari, Gipuzkoako Diputatu Nagusiari, eskerrak eman nahi dizkiet gizartearen ordezkari gisa ekitaldira etortzeagatik. Izan ere, gizartea jakintzaren mugetan gertatzen denaz kezkatzen da, humanismo-era anitzak, letrak eta zientziak errespetatu eta kontuan hartzen ditu, eta horregatik guztiagatik arazoak bideratzeko ikuspegiari kalitate-giroa sortzen du, exijentziazkoa, osmosiaren gisa gainontzeko jardueretara zabaltzen dena.

Eskerrak baita ere Eusko Ikaskuntzako taldeek egindako lanagatik, bereziki Javier Retegi lehendakariak. Askatasun osoz, mendekotasunik eta baldintzarik gabe lanean hasteko esparru bikaina eskaini digutelako Herriaren zerbitzura egongo den Akademia eratzeko. Hilabeteotan erakunde-arkitektura garatuko dugu, prozedurak, eta misioa zehaztuko dugu. Etikoki, kulturalki eta zientifikoki garatuen dauden inguruetako esperientziarik onenak hartuta, horien inguruan hausnarketa egin eta ikasi egingo dugu. Bakoitzak bere alorrean duen *auctoritas* pertsonalagatik aukeratutako kideekin, hau da, euren kalitate profesionalaren arabera hautatutakoekin. Hori gabe ez dago sinesgarritasunik ez eta funtzionalitaterik ere. Eztabaidan eta egiaren bilaketan askatasuna, independentzia, zorrotasuna eta sosegua izan daitezela euren ezaugarriarik onenak gizartearen zerbitzuan aritzeko. Erlatibismo antzuetatik, sektakerietatik eta modetatik urrunduta, egia badela eta -neurri batean eta nahi adina xehetasunekin- egiara hurbildu gaitezkeela sinistea eskatzen du horrek.

Traducción del euskera:

Para terminar, y al hilo de lo mencionado, quisiera hacer una mención en torno al euskera.

El deber fundamental de Jakiunde es el *Conocimiento*, lo más excelso posible, sea cual fuere la cuestión tratada y la lengua en que esté expresada, pero con el **deseo** de ayudar al mejor desarrollo de los seres humanos, en la medida de hablantes, y de los pueblos. Nuestro deseo, por lo tanto, comparte el sueño de Mitxelena, expresado de forma inmejorable por Lizardi:

“Baña nik, izkuntza larrekoa,
nai aunat ere noranaikoa,

yakite-egoekigoa;
soña zaar, berri gogoa;
azal orizta, muin betirakoa».

Quienes deseamos comunicarnos en euskera con las generaciones venideras y deseamos ser partícipes –si no agentes– de los avances del conocimiento, no tenemos otra vía que la expresada por Orixe: “***Hats emaiogun hontan iraun dezan***”.